

## EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

### GASTEIZKO ELIZBARRUTIAREN ALDIZKARIAN (1901-1950)

#### 1. SARRERA

Idazkitxo honen bidez Karmel aldizkariaren zuzendaritzak luzatutako gonbitari erantzun nahi izan diot. Kontua da argitalpenaren zuzendariak hogeitabost urte bete dituela langintza horretan: zorionak, Julen! Hori dela eta, lantxo hau prestatu orduko, aldizkariaren *nagusiak* gustuko duen gai bat aukeratzen saiatu nintzen, hain zuzen ere, euskal elizaren inguruko historia<sup>1</sup>.

Hori gorabehera, lanaren helburu xumea hauxe izan da: Gasteizko Elizbarrutiaren agerkaria ikertu, sortu zenetik elizbarrutiaren birmoldaketa gertatu arte, bertan agertzen diren euskararen eta euskal kulturaren inguruko aipamen garrantzitsuenak laburbiltzeko. Beraz, irakurleak euskaren historia sozialaren inguruko datu batzuk aurkituko ditu, betiere, Gotzaindegiko aldizkarian oinarrituta<sup>2</sup>. Lana antolatzeko,

---

<sup>1</sup> Julen Urkizaren zaletasun horretaz jabetzeko nahikoa da bere *Elizaren historia Euskal Herrian* izeneko lan mardul (1459 orrialde ditu) eta zoragarria (gure historia ikertzeko ezinbestekoa tresna da eta) gogora ekartzea, edo talde laneko *Provincia Carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (siglos XIII-XX)*.

<sup>2</sup> Gai hau (eliza eta euskara), jakina, *Elizaren historia Euskal Herrian* liburuan jasota dago, hainbat aipamenekin (1073-1079. orrialdeetan).

bi aldi desberdinduko ditugu, XIX. mendea eta XX. mendea. Oraingo honetan hogeigarren mendeko kontuak aipatuko ditugu; XIX, mendekoak, berriz, hurrengo baterako itxiko ditugu.

## 2. ELIZBARRUTIKO ALDIZKARIAREN INGURUKO DATU BATZUK

Ezaguna denez, Gasteizko Gotzaindegia 1861. urtean abiatu zen eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako lurraldeak hartzen zituen. Horrekin batera gotzaindegiari lotutako aldizkari ofiziala jaio zen 1862an: hasieran *Boletín eclesiástico del Obispado de Vitoria* izena hartu zuen; 1914tik aurrera beste izen batekin agertu zen: *Boletín oficial del Obispado de Vitoria*. Urte horietan aldizkakotasun aldaketak izan zituen eta bigarren gerra karlistaren urteetan denboraldi batez ez omen zen argitaratu (1874-1876). 1950. urtean gotzaindegia desegin zen, gaur egungo hiru gotzaindegiak sortzeko. Aurretik esan dugunez, Francoren garaiko gertakari horrek gure lanaren bukaera marcatzen du<sup>3</sup>.

Logikoa denez, aldizkaria sasoi haien isla da eta orduko Elizaren eta gizarteari buruzko datuen iturri paregabea. Julen Urkizak berak, jakina, bere lanetarako erabili izan du. Beste iker-tzaile askok ere bai<sup>4</sup>.

<sup>3</sup> Egia esan, Deustuko Unibertsitateko Liburutegian gordetako bilduma erabili dugu; bilduman ale batzuk falta dira; hauek dira, laburbilduz, funtsen laburpenak: a) *Boletín eclesiástico del Obispado de Vitoria*: 1901-1902, 1904-1908, (1909: 7. zenbakia falta da), 1910-1913; b) *Boletín oficial del Obispado de Vitoria*: 1914-1917, (1918: 2. zenbakia falta da), 1919-1950 (hortik aurrerakoak ez ditugu aipatuko).

<sup>4</sup> Historiari buruzko liburu eta artikuluetan (orokorrak nahiz kazetaritza edo erlijioari buruzkoak) iturri modura erabiltzen da, horien bibliografietan ikus daitekeen bezala. Badago Deustuko Unibertsitateko liburutegiaren apalategietan gure aldizkariaren inguruko tesina bat, 1976koa, argitaratu gabea, hain zuzen, *El sexenio revolucionario a través de los boletines eclesiásticos del Obispado de Vitoria*, Raquel López Fernándezena.

Azkenik esan behar da badagoela Gotzaindegiko aldizkariaren aleei buruzko laburpen moduko bat, *Índice analítico del Boletín Oficial del Obispado de Vitoria*, izeneko<sup>5</sup>; hala ere, lan hori ez da guretzat baliagarria izan, euskarari eta euskal kulturari ez zaielako zuzeneko aipamenik egiten, besterik ez bada, Francoren garaiko urteetan idatzi eta argitaratu zelako.

### 3. GAI NAGUSIAK XX. MENDEAN: 1901-1950

Hona hemen aldizkariaren XX. mendeko zenbakietan agertzen diren gai nagusiak, euskarari dagokionez.

#### 3.1. Lanpostuen iragarkiak

Herri administrazioetako aldizkari ofizialetan gertatzen den bezala, Gotzaindegiko aldizkarian ere, noizean behin, lanpostuak betetzeko deialdiak agertzen dira. Horietako batzuetan euskara aipatzen da. Egia esan, oso gutxitan agertu zaizkigu halakoak; lau iragarki topatu ditugu:

- «Se halla vacante la plaza de Organista de la Iglesia parroquial de Santa María de Yurre, en la provincia de Vizcaya, que se proveerá en un Presbítero que posea el idioma vascongado» (1902: 24. zk. 412. or.).
- «Se halla vacante la plaza de Organista de la parroquia de San Martín de la Villa de Berástegui [...] Los aspirantes, que deberán poseer el idioma vascongado» (1904: 14. zk. 203-204. or.).
- «Vacante la plaza de Capellán segundo de dicho Hospital [Casa de Misericordia y Hospital de San Antonio Abad] [...] los Sacerdotes que aspiren a desempeñarla han de poseer precisamente la lengua vascongada» (1914: 4. zk. 94. or.).
- «Se halla vacante el cargo de Capellán de Agonizantes por fundación de don Juan Ignacio de Obiaga en la parroquial

<sup>5</sup> *Índice analítico del Boletín Oficial del Obispado de Vitoria (1862-1948)*, Editorial S. Católica, Vitoria, 1948.

de Placencia de Guipúzcoa [...] Los señores Sacerdotes que deseen solicitarlo, y que deberán poseer el vascuence» (1919: 9. zk. 197-198. or.).

### 3.2. Liburuen publizitatea

Gotzaindegiko aldizkarian maiz agertzen dira liburuen iragarkiak. Publizitate gehiena erdarazko liburuen ingurukoa da, baina noizean behin euskal liburuak iragartzen dira; hona hemen liburuon zerrenda:

- *Diccionario vasco-español-francés* (1906: 23. zk. 480-481. or.).
- *Besperatako salmoak eta latinezko beste kanta batzuek* (1914: 13. zk. 334. or.).
- *Albiste on bat, urte oro berritzen dana* (1917: 5. zk. 115-116. or.).
- *Eleiz kantak* (1920: 3. zk. 79. or.).
- *Zeruko orrichua* (1925: 17. zk.).
- *Jesús aurraren sorora Teresatxo zoriondunari bederatziruena* (1925: 21. zk. 438. or.).
- *Jaungoikoaren legeko aginduak* (1926: 6. zk. 145. or.).
- *Eliz Abestiak* (1928: 26. zk. 763. or.).
- *Ipuintxoak* (1929: 14. zk. 418. or.)
- *Biozkadak* (1930: 5. zk. 150. or.)
- *Lili Txingar* (1930: 5. zk. 151. or.)
- *Vida del P. Domingo de la Santísima Trinidad en vascuence* (1930: 5. zk. 151. or.).
- *Conjugación vasca* (1928: 5. zk. 151. or.)
- *Vasconia españolísima* (elebitasunaren abantailak aipatzen dira; 1940: 4. zk. 132. or.)

### 3.3. Euskarazko katexima eta hezkuntza

Lau testu hauek dira aipagarriak:

- *Circular abriendo concurso para la adopción de Textos Únicos de Catecismo para toda la Diócesis tanto en castellano como en vascuence* (1915: 23. zk. 570-574. or.).
- *Prórroga para presentar trabajos (catecismos)* (1916: 3. zk. 54-55. or.).
- *Concurso de Catecismos (trabajos presentados)* (1916: 16. zk. 238-240. or.).
- *Circular sobre el texto vasco del Catecismo diocesano* (1922: 7. zk. 177. or.).
- *Circular n<sup>o</sup> 154 sobre el idioma en que se ha de enseñar a los niños la Doctrina Cristiana* (1933: 10. zk. 242-243. or.).

### 3.4. Euskarazko haur-izenen auzia

Euskarazko izenak jartzeko ahaleginen inguruan:

- *Exhortación pastoral* (1910: 3. zk. 36-49. or.; jeltzaleen eskaerekin sortarazi zuten auzia).
- *Adhesión de profesores de Seminarios a la anterior exhortación* (1910: 4. zk. 59-60 or.).
- *Circular sobre la imposición de nombres vascos* (1910: 10. zk. 170-172. or.).
- *Circular* (1911: 22. zk. 361. or.).
- *Circular. Sobre la inserción de nombres vascos en la partida sacramental* (1918: 12. zk. 296-300. or.).
- *Circular n<sup>o</sup> 9. Aclaración de la publicada el 3 de Junio de 1918 [aurreko testua da] sobre inscripción de nombres vascos en la partida sacramental* (1923: 21. zk. 532-533. or.).

Francoren garaian sartuta, berriz, honakoa agertzen zaigu:

- *Ministerio de Justicia. Nombres que se han de imponer a los nacidos. Orden.* Testu hori, izenburuak dioenez, ez dator Elizaren agintaritzatik, baizik eta diktadurako gobernutik, eta bere xedea euskal izenak murriztea da (1938: 11. zk. 212-214. or.).

### 3.5. Euskarazko testuak

Eusko Ikaskuntzak 1918ko Oñatiko Kongresuan hartutako erabakien artean hauxe zegoen: «Ruego análogo a los señores Obispos de Pamplona y Vitoria, para que a ejemplo del de Bayona, a quien se acordó felicitar, todas las Pastorales y documentos episcopales los redacten y sean leídos en euskera en todas las parroquias donde existen euskaldunes. / Beste arren bat Iruña ta Gazteizko Obispoai, Baionakoaren irudira (oni esker ta zorion) beren oar, agiri ta eskutitzak euskeraz ipiñi ditzaten ta euskal eleiztietan euskeraz irakur-erazi»<sup>6</sup>. Eskakizun hori 1923tik aurrera bete zen, neurri batean, behintzat, Gazteizko gotzaindegian, jarraian ikus daitekeenez<sup>7</sup>. Gotzaitzegiko aldizkariaren euskarazko testuak herritarrei irakurtzeko ziren.

<sup>6</sup> Horixe da Hizkuntzari buruzko talde edo atalaren zortzigarren ondorioa; horrekin batera, jakina, euskara elizaren inguruan bultzatzeko beste neurri batzuk proposatu ziren. *Primer Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea...*, Bilbaína de Artes Gráficas, Bilbo, 1919, 486. or. Bide batez esango dugu Eusko Ikaskuntzari buruz (Eusko Ikaskuntzaren araudia) hitz egiten dela Gotzaindegiko aldizkarian (1919: 10, 220-225. orr.).

<sup>7</sup> Nafarroako egoera, 1876tik 1919ra, behinik behin, Blanca Urmenetak ikertu du (*Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones: 1876-1919*, Nafarroakoa Gobernua, Iruñea, 1996). Gure gaiari buruz hurrengoak dio: «No hace falta decir que la presencia de la lengua vasca en el *Boletín Eclesiástico* es mínima. Los obispos que ocupan la sede episcopal en el periodo estudiado -especialmente Oliver Hurtado y López-Mendoza- y muchos eclesiásticos favorecen el cultivo del vascuence y no parece existir ningún impedimento para la presencia de escritos en esta lengua. Sin embargo, la finalidad de una publicación de su naturaleza no se presta a colaboraciones en vascuence» (116-117. orr.). Egileak euskarazko bost testu xume aipatzen ditu: lehenengo biak 1903an; beste bi, 1904an, eta azkena, 1905ean.

### 3.5.1. Gotzainen gutunak eta antzekoak

#### a) Fray Zacarías Martínez Núñez gotzainaren aldia (1923-1928)

- *Carta Pastoral primera que dirige a los fieles de su Diócesis el Ilustrísimo Señor Obispo de Vitoria / Vitorijaco Obispo Jaun Arguijac lenengo bere eleistarrai bailduco escutiz edo Cartia* (1923: 15. zk. 353-371/372-390. or.). Aldizkarian bertan esaten denez, gutun elebidun hori foileto modura argitaratu zen baita ere, eta arrakasta handia izan zuen<sup>8</sup>. Euskarazko testua bizkaieraz dago.
- *Carta Pastoral que el Excmo. y Rvmo. Sr. Dr. D. Fray Zacarías Martínez Núñez, Obispo de Vitoria, dirige a todos los fieles de su amada Diócesis acerca de la unión / D. Fr. Zakarias Martinez Nuñez Gazteiz ́ko obispo jaun goi ta gurgarriak bere barruti maiteko kristau guztiai eskutitza, batasuna.* (1924: 9. zk. 197-211/212-227. or.). Euskarazko testuak bi ohar ditu: «Eskutitz auek Euskaltzaindiak agindurik daukan idazkeraz idaztea erabakirik dagoen arren, irarkolan artarako gairik asko ez dagolako, oraingotz orrela bearko dute» eta «Bizkaierazko itzak *paréntesis* artean dijoaz».
- *Carta Pastoral que el Excmo. y Revmo. Sr. Dr. D. Zacarías Martínez Núñez, Obispo de Vitoria, dirige a todos los fieles de su amada Diócesis acerca de la piedad / D. Fr. Zakarias Martinez, obispo jaunaren eskutitza jaungoiko-zaletasunaz.* (1925: 8. zk. 131-146/147-163. or.). Parentesi artean bizkaierazko formak gehitzen dira euskarazko testuan.
- *Carta Pastoral que el Excmo. y Revdmo. Sr. Dr. D. Zacarías Martínez Núñez, de la Orden de San Agustín, Obispo de Vitoria, dirige al clero y a los fieles de su Diócesis acerca de la*

<sup>8</sup> *Primera carta pastoral (castellano y vascuence) del Ilmo. y Revdmo. Sr. Dr. D. Fray Zacarías Martínez Núñez, Obispo de Vitoria, con motivo de su entrada en la Diócesis*, Tipografía de Fuentes y Marquinez, Vitoria-Gasteiz, 1923, 48 orr.

*unión en la Obra de las Misiones Católicas / D. Fr. Zakarias Martínez Nuñez Gasteiz'ko obispo jaun goi ta gurgarriak bere barruti maiteko kristau guztiai eskutitza, batasuna ta mixio-lanak* (1926: 7. zk. 146-163/164-177. or.). Parentesi artean bizkaierazko formak gehitzen dira euskarazko testuan.

- *Carta Pastoral que con motivo del nuevo Seminario dirige a los fieles de su Diócesis el Excmo. y Reverendísimo Sr. Dr. D. Fray Zacarías Martínez Nuñez, Obispo de Vitoria / Nik, Agustin Donearen anaidiko D. Fr. Zakarias Martínez Nuñez* (1927: 7. zk. 119-135/136-151. or.). Euskarazko testuak ohar hau darama: «Advertencia. Las variantes vizcaínas más principales preceden en letra cursiva a las formas guipuzcoanas».
- *Carta Pastoral de despedida / Nik, Agustin Doatsuaren anaidiko D. Fr. Zakarias Martínez Nuñez* (1928: 8. zk. 169-176/177-184. or.) Bizkaierazko formak parentesi baarruan berriz ere.

*b) Mateo Múgica Urrestarazu gotzainaren aldia (1928-1937)*

- *Primera Carta Pastoral que dirige a los fieles de la Diócesis de Vitoria el Ilmo. y Revdmo. Sr. Dr. D. Mateo Múgica y Urrestarazu, Obispo de Vitoria / Gasteiz'ko obispo, Mateo Mujika Ta Urrestarazu, jaun argi-argiak bere barrutiari egiten dien lenengo gotzai-eskutitza*<sup>9</sup> (1928: 17. zk. 417-439/440-462. or.).
- *Carta Pastoral que el Ilmo. y Revdmo. Sr. Dr. D. Mateo Múgica y Urrestarazu, Obispo de Vitoria, dirige al Clero y fieles de su amada Diócesis [con motivo de la Santa Cuaresma] / Gasteiz'ko obispo, Mateo Mujika Ta Urrestarazu, jaun argi-*

<sup>9</sup> Mateo Mugicaren garaiko testu horretan eta hurrengoan bizkaierazko formak parentesi artean doaz



- argiak bere barrutiari egiten dien gotzai-eskutitza* (1929: 5. zk. 117-146/147-175. or.).
- *Exhortación Pastoral en la que se promulga y comenta la Instrucción de la Sagrada Congregación del Concilio sobre las modas inhonestas de las mujeres / Gotzai-eskutitza emakumeen jazkeraetako berrikeri galgarriak galerazteko Sacra Congregatio Concilii ́k eman dituan legeak adierazi ta azalduaz (Gip.) / Gotzain-itzaldia emakumezkoen yantzikera zantarretzaz konzilio ́ko Eleiz-Batzak, emon dituan irakatsiak yankin-erazo ta azalduteko (Bizk.)* (1930: 9. zk. 257-280/281-300/301-321. or.)<sup>10</sup>.
  - *Carta Pastoral que el Ilmo. y Excmo. Sr. Dr. D. Mateo Múgica y Urrestarazu, Obispo de Vitoria, dirige al Clero y fieles de su amada Diócesis, sobre el XV Centenario de la definición dogmática de la Maternidad Divina de María / Gazteiz ́ko obispo, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi-argiak bere barrutitarrai egiten dien gotzai-eskutitza (Gip.) / Gasteiz ́ko gotzain, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi ta agurgarriak bere eleiz-barruti maiteko abade ta kristiñauai zuzentzen dautsen gotzain-eskutitza (Bizk.)* (1931: 1. zk. 1-26/27-49/50-74. or.).
  - *Carta Pastoral que el Excmo. y Rvdmo. Sr. Dr. D. Mateo Múgica y Urrestarazu, Obispo de Vitoria, dirige al Clero y fieles de su amada Diócesis, sobre el Sacerdote y sus augustos ministerios / Gazteiz ́ko obispo, Mateo Mujika Ta Urrestarazu, jaun argi-argiak bere barrutitarrai egiten dien gotzai-eskutitza (Gip.) / Gasteiz ́ko gotzain, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun agurgarria ta argiak bere eleiz-barruti maiteko*

---

<sup>10</sup> Aurreko testuetan euskalkien kontua honetara ematen zen: testu bakarra agertzen zen eta bizkaierazko aditzak parentesien bidez (edo letra etzanez) ematen ziren, gipuzkerazko aditz eta berba batzuen ondoan. 1930etik aurrera, aldiz, erdarazko testuaren itzulpen bi egingo dira, euskalkiz euskalki (eta itzulpenak oso desberdineak direla euren artean esan behar da).

- abade ta kristiñauai zuzentzen dauzten gotzain-eskutitza (Bizk.)* (1932: 4. zk. 80-104/105-125/126-147. or.).
- *Exhortación Pastoral sobre las Escuelas Católicas / Katoliko-Ikastetzaz Gotzain-Idazkia* (1932: aparteko zenbakia (25-10) 537-552/553-568/569-584. or.).
  - *Exhortación Pastoral que cumpliendo lo mandado por S.S. el Papa Pío XI, dirige a sus diocesanos con motivo del Jubileo General y Máximo del Centenario XIX de la Redención Humana, el Excmo. y Revdmo. Sr. DR. D. Mateo Múgica y Urrestarazu, Obispo de Vitoria / Gasteiz'ko gotzain, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun agurgarria ta argiak XI'n Pio Aita Santua'ren agindua beteaz, Gizadiaren Berrerokundeko XIX Gizaldiko, Jubileo Nagusia dala-ta, bere Eleiz-Barrutikoei zuzentzen dauzten Gotzain-Idazkia (Bizk.) / Gasteiz'ko gotzai, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi ta agurgarriak, XI'n Pio Aita Santua'ren agindua beteaz, Gizadiaren Berrerokundeko XIX Gizaldiko Jubileo Nagusia dala-ta, bere Eleiz-Barrutikoei zuzentzen dien Gotzai-eskutitza. (Gip.)* (1933: 6. zk. 109-128/129-147/148-164. or.).
  - *Carta Pastoral con motivo de celebrarse en todo el mundo horas Santas y solemnidades eucarísticas aprobadas y bendecidas por S.S. el Papa Pío XI para coronar el Jubileo del Centenario XIX de la Redención Humana. / Gasteiz'ko gotzai, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi ta agurgarriak, XI Pio Erroma'ko Aitak onetsi-ta Gizadiaren Berrerokundearen XIX Gizaldiko Jubileo Nagusia bukatzeko lurzabal Guztian egingo diran Ordu Santu ta Eukaristi-eliskizunak dirala-ta bere Eliz-Barrutikoei egiten dien Gotzai-eskutitza (Gip.) / / Gasteiz'ko gotzain, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi ta agurgarriak, Berrerokundeko XIX'n Gizaldiko Yubileoa ondo amaitzeko, XI'n Pio Aita Santuak onetsi dituan Ordu Deun eta Eukaristi-Eleizkizunak dirala-ta, bere eleiztarrerri zuzentzen dauzten Gotzain Idazkia (Bizk.)* (1934: aparteko zenbakia (03-05) 141-176/177-209/210-238. or.).

- *Carta pastoral que el Ilmo. y Rvdmo. Sr. Dr. D. Mateo Múgica y Urrestarazu, Obispo de Vitoria, dirige al Clero y fieles de su amada Diócesis sobre el paro forzoso / Gasteiz'ko gotzain, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi ta agurgarriak, bere eleiz-barruti maiteko eleiz-gizon eta eleiztarrei lanik ez gorria dala-ta, zuzentzen dautsen gotzain-idazkia (Bizk.) / Gasteiz'ko gotzai, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi ta agurgarriak, bere eleiz-barruti maiteko eleiz-gizon eta eleiztarrei lanik ez gorria dala-ta, zuzentzen dien gotzai-idazkia (Gip.)* (1934: 12. zk. 367-380/381-393/394-406. or.).
- *Carta Pastoral que el Ilmo. y Rvdmo. Sr. Dr. D. Mateo Múgica y Urrestarazu, Obispo de Vitoria, dirige al Clero y fieles de su amada Diócesis con motivo de la Santa Cuaresma / Gasteiz'ko gotzain, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi ta agurgarriak; bere eleiz-barruti maiteko abade ta eleiztarrei zuzentzen dautsen Gotzain-Idazkia (Bizk.) / Gasteiz'ko gotzai, Mateo Mujika ta Urrestarazu, jaun argi ta agurgarriak; bere eleiz-barruti maiteko Apaiz ta eleiztarrei zuzentzen dien Gotzai-Idazkia (Gip.)* (1935: n° extra (12-03) 155-172/172-187/188-202. or.).

### 3.5.2. Zirkularrak

#### a) Fray Zacarías Martínez Núñez gotzainaren aldia

- *Circular n° 78 sobre la consagración del género humano al Sacratísimo Corazón de Jesús. Barruko zati bat elebiduna da: Consagración del género humano al Sagrado Corazón de Jesús / Jesus'en Biotzari gizadia eskeintzeko otoitza<sup>11</sup>* (1925: 23. zk. 464-468/469. or.). Testu hori aurrerago ere agertuko da gehigarri hauekin: *Letania del Sagrado Corazón de Jesús / Jesus'en Biotzaren Litaniak eta Oración / Otoitza* (1926: 20. zk. 485-488/488-491. or.).

<sup>11</sup> Sasoi horretako gotzain-gutunetan bezala, euskarazko testuan parentesi artean bizkaierazko forma batzuk gehitzen dira. Euskalkien kontu hori ez du gu berriz aipatuko.

- *Circular n° 153 sobre el monumento de Guipúzcoa al Corazón de Jesús / Jesus'en Biotzari Irudi bat Gipuzkoa'n* (1928: 8. zk. 185-187/187-189. or.).

*b) Mateo Múgica Urrestarazu gotzainaren aldia*

- *Circular n° 20 a favor del Nuevo Seminario / Seminario Berriarentzat* (1928: 26. zk. 749-752/752-756. or.).
- *Circular n° 113 sobre el dinero del Culto y Clero. / Elizgauzetarako eta elizgizonentzako dirua* (1931: 26. zk. 705-710. or.).
- *Circular n° 148 sobre el deber de contribuir a la Obra diocesana del Dinero del Culto / «Eleiz-dirua»ri lagunduteko guztiok dogun eginkizunaz (Bizkaieraz) / «Eliz-dirua»ri laguntzeko guztiok degun eginkizunaz (Gipuzkoeraz)* (1933: 2. zk. 19-26/27-33/34-40. or.)
- *Circular n° 216 sobre la erección de una nueva iglesia dedicada al Sagrado Corazón de Jesús en el barrio de Loyola de San Sebastián* (1935: 2. zk. 17-21/21-24. or.) / *Donosti-Loyola'n Jesus'en Biotzari Eliza berri bat egin bearrez*
- *Circular n° 218 sobre la celebración de jornadas de Acción Católica en Bilbao, Vitoria y San Sebastián / Ekintza Katolikua Gazteitz'en, Bilbao'n ta Donostia'n (Gip.) / Ekintza Katolikua Gazteitz'en, Bilbao'n ta Donostia'n (Bizk.)* (1935: 3. zk. 38-44/44-51/51-58. or.)
- *Circular n° 243 sobre jornadas de Acción Católica en Bilbao / Ekintza Katolikua Bilbao'n* (1935: n°extra (05-11) 525-531/532-538. or.).

### 3.5.3. Bestelakoak

- *Euscaldunen peregrinaciñua Erromara. Fray Valentin Berrio-Ochoaren Beatificaciñua / Peregrinación vascongada a Roma. Beatificación del V. Fray Valentín de Berrio-Ochoa* (1905: 19. zk. 396-400/400-404. or.); sasoi horretako salbuespena,

euskarazko testu luzea da eta; baina bere jatorria ez dago gotzainaren inguruan<sup>12</sup> (hau da, gotzaitetikiko berezko testuak 1923tik aurrera hasi ziren, arinago esan dugun moduan).

- *Preces para las visitas públicas jubilaires* (1926: 4. zk. 79-85. orr.; elebiduna).
- *Espiritu Doneari Bederatziurrena* (1927: 10. zk. 206-207. or.); gaztelaniazko testua aurretik agertu zen, hain zuzen, 1924ko liburukian, 243. orrialdean).
- *Oración / Otoitza*; Balendin Berrio-Otxoaren inguruan (1927: 12. zk. 261-264/265. or.).
- *Acto de reparación al Corazón Sacratísimo de Jesús / Jesus'en Biotzari Ordain-Otoitza* (1928: 11. zk. 272-273/273-274. or.).
- *Circular n° 201 sobre la letra del Himno a San Ignacio de Loyola* (1934: 15. zk. 496-497. or.); euskazko testuaz ari da, jakina, hurrengo aginduz: «que nadie cante en los actos de culto otra letra que la que aquí reproducimos del devocionario “Argi Done Laburra” o la letra antigua de todos conocida, aunque se halle divorciada de la pureza lingüística».

### 3.6. Beste gorabehera batzuk

Euskarari buruzko datu solteak beste testu batzuetan topatu ahal dira, esaterako, gogo-jardunen eta beste ospakizunen inguruko berriak (eta euskararen erabilpena horietan), etab. Ez gara luzatuko. Bitxikeria bat bukatzeko: euskarazko liburu bat gaitzetsi zen 1931n, alegia, Vicente Aizpuruaren *Gazteak garbik izan* (*Decreto condenando el libro «Gazteak garbik izan» y su traducción castellana*; 1931: 8. zk. 227-228. or.).

*Cesar Gallastegi*

---

<sup>12</sup> Testu hori orri solte modura ere argitaratu zen aurretik; orriaren argazkia eta informazio osoa lan honetan: Roman Berrioababal: *Proceso de beatificación de Valentín Berrio-Otxoa (1862-1906)*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 2005.